

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zk.: **46**
Nork aurkeztua: **Teknologi Elkartegia, S.A.**
Aurkezpen data: **2022/02/08**

Sugerencia N°: **46**
Presentada por: **Parque Tecnológico, S.A.**
Fecha de presentación: **08/02/2021**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Parke Teknologikoa SAK eskatzen du:

LPPko memorian, antolamendu-arauetan eta planoetan aurreikuspen bat jasotzea Zamudioko Parke Teknologikoaren eremua berretze aldera lurzoru-erreserbaren eremua handitzeari dagokionez, 8,5 ha-ko eremu bat txertatuz II. eta Aresti sektoreen artean, bion mugakide. Era berean, eskatzen da lursail horiek eremu nabarmengarritzat hartzeko.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Eskatutako handitze horren garapena ahalbidetzeko, ez da beharrezkoa aipatutako lursailak erreserba gisa edo eremu nabarmengarri gisa agertzea LPPan. LAGen 11.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aski izango da Zamudioko HAPOaren berrikuspenak lurzoru urbanizagarri gisa birsailka ditzala, zeren, LPPak definitutako Hiri Hazkundearen Perimetroaren (HHP) barruan egonik, lurzoru horiek Parke Teknologikoaren hiri-bilbearen mugakide baitira, eta bertan integragarriak.

Lurzoruen sailkapena eta kalifikazioa udalaren eskumena da. Horregatik, ez da LPParen asmoa etorkizuneko lurzoru urbanizagarriko sektoreen zedarritzapena aurreratzea.

Aipatutako lursailek ez dute jarduera ekonomikoen erreserba estrategikorik osatzen. Bestetik, erreserba horiek ez dute zerikusirik eremu nabarmengarriekin. LPPko «eremu nabarmengarriak» lurzoru kalifikatuetan

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Parque Tecnológico S.A. solicita:

Recoger en la Memoria, Normas de Ordenación y planos del PTP la previsión de una ampliación del ámbito de la reserva de suelo para acrecentar la superficie del Parque Tecnológico de Zamudio, incorporando una superficie de 8,5 ha entre los sectores nº II y Aresti, colindante con ambos. Asimismo, se solicita que estos terrenos se consideren como Espacio Relevante.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Para posibilitar el desarrollo de la ampliación solicitada no se precisa que los referidos terrenos aparezcan recogidos como reserva ni como espacio relevante por el PTP. De acuerdo con lo previsto en el artículo 11.2 de las DOT, bastará con que la revisión del PGOU de Zamudio los reclasifique como suelo urbanizable, ya que se trata de suelos que se hallan dentro del Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU) definido por el PTP y son colindantes con la trama urbana del Parque Tecnológico e integrables en ella.

La clasificación y calificación de suelo es competencia municipal. De ahí que el PTP no pretenda anticipar la delimitación de los futuros sectores de suelo urbanizable.

Los terrenos referidos no constituyen una Reserva Estratégica de Actividades Económicas. Por otro lado, estas reservas no tienen que nada que ver con los Espacios Relevantes. Los "Espacios Relevantes" del PTP se ubican por





kokatzen dira definizioz, eta jarduera ekonomikoen erreserba estrategikoak (JEEE), berriz, lurzoru urbanizaezinetan. «Eremu nabarmengarriak» izendapena LPParen berezko terminologia instrumental hutsa da, eta ez du transzendentzia handirik udal-plangintzetan eremu horiek garatzeko. Aldiz, «jarduera ekonomikoen erreserba estrategikoak» bai agertzen dira halakotzat definituta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 6.2 apartatuan. Bi terminoen artean bereizteak haiek tipifikatzen eta tratatzen laguntzen du, eta horrek ez dio eragiten haien inportantzia erlatiboari.

definición en suelos calificados, mientras que las “Reservas Estratégicas de Actividades Económicas” (AAEE) se sitúan en suelos no urbanizables. La denominación de “Espacios Relevantes” responde a una terminología meramente instrumental propia del PTP, que no tiene mayor trascendencia para el desarrollo de estos ámbitos en los planeamientos municipales. En cambio, las “Reservas Estratégicas de Actividades Económicas” sí aparecen definidas como tales en el apartado 6.2 del Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales. La distinción entre ambos términos ayuda a su tipificación y tratamiento, sin que esto vaya en menoscabo de su importancia relativa.

Azaldutako guztia dela eta, ondorioztatzen da:

- LPPak ez dakar inolako eragozpenik Larrauz sektore berria sortzeko proposamenerako, bateragarria baita plangintzako lurralde-antolamenduarekin.
- LPPak ez du etorkizuneko sektore hori jasoko eremu nabarmengarri edo erreserba estrategiko gisa.

Por todo lo expuesto, se concluye que:

- El PTP no supone ningún inconveniente para la propuesta de creación del nuevo sector Larrauz, ya que resulta compatible con la ordenación territorial planteada.
- El PTP no recogerá este futuro sector como Espacio Relevante o Reserva Estratégica.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

